Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2020-02-10
ENPLEGUA,GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD



Bizkaiko Foru Aldundiaren ......../2020 Foru Dekretua, otsailaren 18koa, zeinaren bidez sortzen baita Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeak adierazten du foru-administrazioek sustatuko dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika eraginkorrak abiaraztea zeinek bere lurralde historikoan.

6. artikuluko k) letraren arabera, eginkizun hau dagokie foru-administrazioei: *"erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek lurralde-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute"*.

Ildo berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoan berdintasun benetako eta eraginkorra lortzeko beharrezko diren baldintzak bermatzea.

Horretarako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren eginkizunak jasotzen ditu, besteak beste: (8.g) artikulua) Bizkaiko mugimendu

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia ........../2020, de 18 de febrero, por el que se crea el Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia.

La Ley Vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, señala que las Administraciones Forales promoverán la puesta en marcha de políticas efectivas para la igualdad de mujeres y hombres en sus respectivos Territorios Históricos.

Según se recoge en su artículo 6. k), corresponde a las administraciones forales el *"establecimiento de relaciones y cauces de participación y colaboración con entidades públicas y privadas que en razón de sus fines o funciones contribuyan en su ámbito territorial a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres"*.

A su vez, el objetivo de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de Mujeres y Hombres, es el de garantizar las condiciones necesarias para la consecución de esa igualdad real y efectiva en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Para ello, recoge entre las funciones del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres en el artículo 8.g) el establecimiento y coordinación de cauces de

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

feministekin eta emakume-elkarteekin harremanetarako eta lankidetzarako bideak ezartzea eta koordinatzea, beharrezko baldintzak sortzea bertan garatzen den lana indartzeko; (8.h) artikulua) sustapen-neurriak ezartzea emakumeen elkartegintza indartzeko eta emakumeen ahalduntzea eta partaidetza sozio-politikoa sustatzeko; eta (8.f) artikulua) erakundeen artean partaidetza, koordinazioa eta lankidetza sustatzea eta foru-arau honetan ezarritako helburuak lortzeko behar diren elkarlan eta lankidetzarako tresnak garatzea; lankidetzan arituko da, bereziki, beste erakunde publiko batzuekin eta sozietate zibileko beste erakunde batzuekin, hain zuzen, ikuspegi intersekzionala oinarri helburu edo eginkizun hauek dituzten erakundeekin: emakumeen eskubideak sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea, indarkeria matxista desagerraraztea eta genero-diskriminazioak ezabatzea.
Hori dela eta, 4/2018 Foru Arauak, berdintasun-politika publikoen funtsezko hobekuntzarako gizarte-eskariei erantzuteko, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sortzen du 18 artikuluan; kontseilu hori erakunde feministek, emakumeen elkarteek eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea helburuen eta eginkizunen artean duten beste entitate eta erakunde batzuek parte hartzeko organoa izango da.

4/2018 Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezartzen denez, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren osaera, eginkizun, antolaketa, bileren maiztasuna eta jardunerako araubidea erregelamenduz arautuko dira. Erregelamendu hori behin foru-arau hau

relación y colaboración con el movimiento feminista y asociativo de mujeres de Bizkaia; asimismo, creación de las condiciones necesarias para el fortalecimiento de la labor que desarrollan; en el artículo 8.h) el establecimiento de medidas de fomento para el fortalecimiento del asociacionismo de mujeres y para la promoción del empoderamiento y la participación socio-política de las mujeres y en el artículo 8.i) la participación, coordinación y colaboración interinstitucional y desarrollo de cuantos instrumentos de colaboración y cooperación sean necesarios para alcanzar los objetivos de la Norma Foral 4/2018, especialmente con otras instituciones y organizaciones de la sociedad civil que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la promoción de los derechos de las mujeres, a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, a la erradicación de la violencia machista y a la eliminación de las discriminaciones de género considerando un enfoque interseccional.

Por ello, la Norma Foral 4/2018, queriendo responder a las demandas sociales en la mejora sustancial de las políticas públicas de igualdad, crea en su artículo 18 el Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia como órgano de participación de asociaciones feministas, de asociaciones de mujeres y de otras entidades y organismos que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

La Norma Foral 4/2018 plantea en su artículo 18.3 que la composición, funciones, organización y periodicidad de reuniones y régimen de funcionamiento del Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia se determinarán vía reglamento mediante un proceso participativo en el que tomarán

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

onartzen denetik sei hilabeteko epean egingo da talde feministen, berdintasunaren aldeko emakume elkarteen zein banakako emakumeen parte hartzea izango duen prozesu parte-hartzaile batetik abiatuta, eta Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsiko dute.

parte los grupos feministas, las asociaciones de mujeres a favor de la igualdad y mujeres de forma individual, y será ratificado por las Juntas Generales de Bizkaia.

Dekretu hau egiteko prozesu parte-hartzailea 2018ko azaroan hasi zen; ahaleginak egin ziren emakumeen ikuspuntu eta esperientzia askotarikoak jasotzeko.

El proceso participativo para la elaboración de este decreto se inició en noviembre de 2018, buscando integrar la diversidad de miradas y experiencias de mujeres.

Kolektibo feministen eta emakumeen elkarteen mapa bat eginda eta berdintasun-arlo espezifikoak dituzten beste erakunde mota batzuk identifikatuta, elkarrizketa eta tailer batzuk egin ziren prozesu parte-hartzailean, eta, azkenean, parte-hartzaile guztiei prozesuaren berri emateko saio bat egin zen.

A partir de un mapeo de los colectivos feministas y de las asociaciones de mujeres y de la identificación de otro tipo de entidades con áreas específicas de igualdad, el proceso participativo consistió en la realización de entrevistas y la celebración de talleres, culminando con una sesión de devolución del proceso a todas las participantes.

Arloko eskumenari dagokionez, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 37.3 artikuluan zein Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a).1 artikuluan, lurralde historikoetako foru-organoei aitortzen zaie arlo honetako eskumen esklusiboa, haietako bakoitzak bere araubide juridiko pribatiboaren arabera erabiliko duena bere foru-organoen antolamendu, araubide eta funtzionamenduaren arloan.

En cuanto a la competencia en la materia, tanto la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en su artículo 37.3, como la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, en su artículo 7.a).1, reconocen a los Órganos Forales de los Territorios Históricos competencia exclusiva, que ejercitarán de acuerdo con el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos, en materia de organización, régimen y funcionamiento de sus Órganos Forales.

Horrez gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 6 eta 24.3 artikuluekin bat, Bizkaiko Foru

Asimismo, de conformidad con los artículos 4, 6 y 24.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres corresponde, entre otras, a la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

Aldundiari dagokio, besteak beste, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak egitera bultzatuko dituzte elkarteak.

Dekretu hau idatzi denean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Hori guztia dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17, 39.k) eta 64.3. artikuluek emandako eskumenak erabiliz, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko otsailaren 18ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Diputación Foral de Bizkaia incentivar a las asociaciones a que lleven a cabo actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

En cuanto a la redacción del presente decreto foral, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Por todo ello, en su virtud y en uso de las facultades conferidas por los artículos 17, 39, párrafo k) y 64. número 3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a propuesta de la Diputada Foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y previa deliberación y aprobación de la Diputación Foral en sesión celebrada el 18 de febrero de 2020

DISPONGO:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

1. artikulua. *Izaera eta atxikipena.*

1. Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sortzen da; kontseilu hori kolektibo feministek, emakumeen elkarte eta taldeek eta emakumeen eta Bizkaiko Lurralde Historikoan gizonen berdintasuna lortzea helburuen eta eginkizunen artean duten beste entitate eta erakunde batzuek parte hartzeko eta solas egiteko organoa izango da.

Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua espazio horizontal eta hurbila izango da; emakume mota guztien parte hartzea sustatuko du, eta, era berean, emakume horien arteko topaketa eta ezagutza, baina, horrez gainera, emakumeen interes komunak defendatuko ditu, parte-hartzearen izaera boluntarioa errespetatuz eta balioetsiz.

Gardentasunaren eta intersekzionalitatearen printzipioak beteko ditu Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluak.

2. Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua kide anitzeko aholkularitza-organo bat da, Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari atxikita dagoena.

Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak konpromisoa hartu du Kontseiluak egindako proposamenei entzuteko, eta hari erantzunen berri emateko.

2. artikulua. *Xedea.*

Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren helburua izango da

Artículo 1. *Naturaleza y adscripción.*

1. Se configura el Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia como un espacio de participación e interlocución de colectivos feministas, de asociaciones y grupos de mujeres y de otras entidades y organismos que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Bizkaia.

El Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia se constituye como un espacio horizontal y cercano, que fomentará la participación de las mujeres en toda su diversidad, el encuentro y reconocimiento entre las mismas y a su vez, favorecerá la defensa de intereses comunes, respetando y dando valor al carácter voluntario de la participación.

El Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia se regirá por los principios de transparencia e interseccionalidad.

2. El Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia es un órgano colegiado, de carácter asesor y consultivo, adscrito al Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Bizkaia.

El Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Bizkaia adquiere el compromiso de escuchar las propuestas realizadas por el Consejo y darle traslado de la respuesta a las mismas.

Artículo 2. *Objeto.*

El Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia tendrá como objeto facilitar un

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

emakumeek gizartean duten eginkizuna eraldatzeko aukera ematen eta errazten duten proposamen, gogoeta eta ekarpenetarako espazio bat eskaintzea, Bizkaiko Lurralde Historiko osoan emakumeen bizi-baldintzak eta posizioa hobetzeko, ikuspuntu kritiko feminista bat oinarri betiere.

3. artikulua. *Helburuak.*

Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluak helburu hauek izango ditu:

a) Bizkaiko emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa, emakumeen herritartasun aktiboa sustatuz bizitzaren arlo guztietan.

b) Kolektibo feministek, emakumeen elkarte eta taldeek eta emakumeen eta Bizkaiko Lurralde Historikoan gizonen berdintasuna lortzea helburuen eta eginkizunen artean duten beste entitate eta erakunde batzuek parte hartzea emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politika publikoen sorreran, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan.

c) Foru-sektore publikoaren eta Kontseiluko erakundeen arteko etengabeko elkarrizketa, ikuspegi feminista politika publikoen garapenean txertatu dadin.

d) Foru-politika publikoetan eragitea Bizkaiko emakumeen eskubide eta interesak defendatzeko eta ikuspegi feminista zeharlerro moduan txertatzeko.

4. artikulua. *Eginkizunak.*

espacio común donde realizar propuestas, reflexiones y aportaciones que permitan y favorezcan la transformación del papel de las mujeres en la sociedad, mejorando sus condiciones de vida y su posición en todo el Territorio Histórico de Bizkaia, con mirada crítica feminista.

Artículo 3. *Fines.*

El Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia tendrá los siguientes fines:

a) El empoderamiento individual y colectivo de las mujeres de Bizkaia fortaleciendo sus prácticas de ciudadanía activa en todos los ámbitos de la vida.

b) La participación de los colectivos feministas, asociaciones y grupos de mujeres y otras entidades y organismos que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Bizkaia para la elaboración, aplicación, seguimiento y evaluación de las políticas públicas destinadas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

c) La interlocución permanente entre el sector público foral y las entidades integrantes del Consejo para la incorporación de la perspectiva feminista en el desarrollo de políticas públicas.

d) La incidencia en las políticas públicas forales para la defensa de los derechos e intereses de las mujeres de Bizkaia y para la integración de la perspectiva feminista de manera transversal.

Artículo 4. *Funciones.*

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

1. Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:

a) Bizkaiko emakumeen dibertsitatea ordezkatuta egon dadin saiatzea, ikuspegi intersekzional batetik.

b) Kontseiluko erakundeen arteko komunikazioa eta harremanak sustatzea; horretarako, erakundeen arteko topaketa eta ezagutza bultzatuko dira sareko lana eta esperientzien trukaketa sustatuz.

c) Emakumeen kolektibo, elkarte eta taldeak sendotzen laguntzea.

d) Elkarte feministen zein emakumeen elkarteen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko komunikazioa, lankidetza eta koordinazioa sustatzea.

e) Bizkaiko Foru Aldundian, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Planaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea, eta beharrezko denean txostenak ematea.

f) Aurretiaz jasotzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren jarduketa-politikei buruzko informazioa, eta haren jarduketarako ildo orokorrak eta urteko plangintza kontrastatzea.

g) Aztertzea Bizkaiko Foru Aldundiko sail ezberdinek egiten dituzten berdintasunari loturiko fou politika publikoak eta berdintasuna nola txertatzen den sail guztietan. Beharrezkotzat jotzen bada, horien inguruko proposamenak landuko dira.

h) Berdintasun-politikak direla-eta egin beharreko proposamenak adostea eta, Emakumeen eta Gizonen

1. El Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia tendrá las siguientes funciones:

a) Favorecer la representación de la diversidad de mujeres de Bizkaia desde un enfoque interseccional.

b) Promover la comunicación y la interrelación entre las entidades integrantes del Consejo, fomentando el encuentro, conocimiento y reconocimiento mutuo para incentivar el trabajo en red y el intercambio de experiencias.

c) Contribuir al fortalecimiento de colectivos, asociaciones y grupos de mujeres.

d) Impulsar la comunicación, cooperación y coordinación de las asociaciones feministas y de mujeres con la Diputación Foral de Bizkaia.

e) Participar en el diseño, seguimiento y evaluación del Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres, emitiendo informes cuando se considere oportuno.

f) Ser informado con carácter previo sobre las políticas de actuación del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres y contrastar sus líneas generales de actuación y su planificación anual.

g) Analizar las políticas públicas vinculadas a la igualdad que se desarrollan en los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia, así como la integración de la igualdad en los departamentos. En los casos en que se considere necesario, se elaborarán propuestas en relación con ellas.

h) Acordar las propuestas a realizar en el ámbito de las políticas de igualdad, y trasladarlas a los departamentos de la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

Berdintasunerako Organoaren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiaren sailei helaraztea.

Halaber, sailek Kontseiluak eginiko proposamenei emandako erantzuna ezagutzea, gardentasun printzipioa betez.

i) Organo eskudunei jakinaraztea tratu-berdintasunaren printzipioaren eta aukera-berdintasunaren printzipioaren kontrako diskriminazio-egoera edo urratze guztiak, haien berri dutenean.

j) Mekanismo eraginkorrak jartzea Bizkaiko emakumeen beharrizan, eskari eta aldarrikapenak proposatzeko foru-politika publikoetan, emakumeen izaera desberdinak kontuan harturik.

k) Berdintasun arloko arauak betetzeko neurriak proposatu eta sustatzea Bizkaiko Lurralde Historikoaren eskumenen barruan, bereziki 4/2018 Foru Araua betetzeko direnak.

l) Indarkeria matxistaren mota guztiak ikusaraztea eta salatzea.

m) Herritarrei jakinaraztea Kontseiluaren lan-lerroak eta jarduketak, gardentasunaren printzipioa betetzeko.

n) Bere helburuen arabera esleitu ahal zaion beste edozein eginkizun.

2. Kontseiluak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu ahal izango dio eta harengandik jaso bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio guztia.

5. artikulua. *Kontseiluaren osaera.*

Diputación Foral de Bizkaia a través del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Además, conocer la respuesta dada por los departamentos a las propuestas realizadas del Consejo, atendiendo al principio de transparencia.

i) Trasladar a los órganos competentes cuantas situaciones de discriminación o vulneraciones de los principios de igualdad de trato y de oportunidades lleguen a su conocimiento.

j) Facilitar mecanismos efectivos para proponer en las políticas públicas forales las necesidades, demandas y reivindicaciones de las mujeres de Bizkaia, atendiendo a sus diversidades.

k) Proponer e impulsar medidas para el cumplimiento de la normativa en materia de igualdad en el marco competencial del Territorio Histórico de Bizkaia, especialmente la Norma Foral 4/2018.

l) Visibilizar y denunciar cualquier forma de violencia machista.

m) Informar a la ciudadanía sobre las líneas de trabajo y actuaciones del Consejo, en cumplimiento del principio de transparencia.

n) Cualesquiera otras funciones relacionadas con sus fines que pudieran atribuírsele.

2. Para el ejercicio de sus funciones el Consejo podrá solicitar y recabar de la Diputación Foral de Bizkaia la información que resulte necesaria.

Artículo 5. *Composición del Consejo.*

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

1. Hauek izango dira Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluko kide:

a) Euskadiko Elkarteen Erregistro Orokorrean erregistraturik dauden elkarte feministak eta emakumeen elkarteak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

1) Jarduera-eremua Bizkaiko Lurralde Historikoa izatea.
2) Ez izatea irabazizko asmorik.
3) Barne-egitura eta funtzionamendurako araubide demokratikoak izatea.
4) Berdintasunaren sustapen aktiboa izatea funtsezko helburu, eta hala jasota edukitzea estatutuen helburuetan eta/edo hala erakutsita egotea elkartearen jardueraren bidez.

b) Euskadiko Elkarteen Erregistro Orokorrean erregistraturik dauden emakumeen taldeak eta kolektibo feministak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

1) Jarduera-eremua Bizkaiko Lurralde Historikoa izatea.
2) Ez izatea irabazizko asmorik.
3) Barne-egitura eta funtzionamendurako araubide demokratikoak izatea.
4) Erakustea jarduera feministak edo berdintasunaren aldeko jarduerak egiten dituztela.

c) Euskadiko Elkarteen Erregistro Orokorrean erregistraturik dauden entitate edo erakundeetako berdintasun arloak edo atalak, beren helburu edo eginkizunekin bat emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen dutenak (alderdi politikoak izan ezik), baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Podrán formar parte del Consejo de Participación de las Mujeres:

a) Las asociaciones feministas y asociaciones de mujeres que estén inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco y cumplan las siguientes condiciones:

1.º Mantener su ámbito de actuación dentro del Territorio Histórico de Bizkaia.
2.º No seguir fines lucrativos.
3.º Contar con una estructura interna y un régimen de funcionamiento democrático.
4.º Que su fin fundamental sea la promoción activa de la igualdad, y que así conste en sus fines estatutarios y/o lo demuestren en su actividad.

b) Los grupos de mujeres y colectivos feministas que, no estando inscritos en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, cumplan las siguientes condiciones:

1.º Mantener su ámbito de actuación dentro del Territorio Histórico de Bizkaia.
2.º No seguir fines lucrativos.
3.º Contar con una estructura interna y un régimen de funcionamiento democrático.

4.º Demostrar la realización de actividades feministas o a favor de la igualdad.

c) Las áreas o secciones de igualdad de entidades u organismos que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, excluyendo los partidos políticos, que estén inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco y cumplan las siguientes condiciones:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

1) Jarduera-eremua Bizkaiko Lurralde Historikoa izatea.
2) Ez izatea irabazizko asmorik.
3) Barne-egitura eta funtzionamendurako araubide demokratikoak izatea.
4) Erakustea jarduera feministak edo berdintasunaren aldeko jarduerak egiten dituztela.
5) Funtzionamendu autonomorako ahalmena izatea; ahalmen horrek entitate edo erakundearen estatutuetan egon behar du jasota, edo gobernu-organoen arteko erabaki baten bidez.

1.º Mantener su ámbito de actuación dentro del Territorio Histórico de Bizkaia.
2.º No seguir fines lucrativos.
3.º Contar con una estructura interna y un régimen de funcionamiento democrático.
4.º Demostrar la realización de actividades feministas o a favor de la igualdad.
5.º Capacidad de funcionamiento autónomo que deberá aparecer recogida en los estatutos de la entidad u organismo, o a través de un acuerdo de sus órganos de gobierno.

Berdintasun arlo edo atalek beren ordezkaritza-organoak izan beharko dituzte beste erakunde publiko edo pribatuetan beren eskumeneko gaietarako.

Las áreas o secciones de igualdad deberán poseer a su vez órganos de representación propia ante otros organismos públicos o privados para aquellas cuestiones de su competencia.

2. Autoantolaketarako dokumentuan jasoko dira b.4 eta c.4 ataletan kontuan hartu beharreko irizpideak.

2. Los criterios a tener en cuenta en los apartados b.4 y c.4 se recogerán en el documento de autoorganización.

6. artikulua. *Kontseiluko kide izatea.*

Artículo 6. *Incorporación al Consejo.*

1. Goiko 5.1 artikuluan aipatutako kolektibo feministek, emakumeen elkarte eta taldeek eta beste entitate eta erakunde batzuek eskabide bat aurkeztu beharko diote batzorde kudeatzaileari kide izateko. Horretarako, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eskatutako dokumentazioa aurkeztea.

b) Parte-hartzerako konpromiso bat sinatzea, non Kontseiluaren xede eta helburuak beren gain hartzen dituzten.

1. Los colectivos feministas, asociaciones, grupos de mujeres y otras entidades u organismos referidos en el artículo 5.1 deberán presentar una solicitud de admisión por escrito a la Comisión Gestora debiendo cumplir los siguientes requisitos:

a) Presentar la documentación requerida.

b) Firmar un compromiso de participación en el que se asuman los objetivos y fines del Consejo.

2. Batzorde Kudeatzaileak egiaztatuko du aipatutako baldintzak betetzen direla, eta, ondoren, Batzarrari aurkeztuko

2. La Comisión Gestora, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos mencionados, presentará las

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

dizkio kide izateko eskabideak, Batzarrean onetsi beharko baitira eskabideok.

7. artikulua. *Kontseiluko kide izateari uztea.*

1. 5.1 artikuluan aipatutako kolektibo feministek, emakumeen elkarte eta taldeek eta beste entitate eta erakunde batzuek Kontseiluko kide izateari utziko diote baldin eta egoera hauetako batean badaude:

a) Beren borondatez hala erabaki badute eta Batzorde Kudeatzaileari jakinarazten badiote.

b) 5.1 artikuluan aipatutako baldintzetako bat betetzeari uzten badiote jarduera bertan behera uzteagatik.

c) Kontseiluaren xedearen eta helburuen kontrako jokabideak edo jarduerak egiten badituzte, Batzarreko kideen bi herenak hala erabakitzen dutenean.

d) Batzarraren bileretara joaten ez badira (ondoz ondoko bi bilera arruntetara edo 5 bilera soltetara).

2. Autoantolaketarako dokumentuan arautuko dira kide izateari uzteko prozedura eta ondorioak, eta Batzarrari egokituko zaio haiek onestea.

3. Kontseiluko kide izateari uzteak ez du eragotziko berriro ere Kontseilura sartzeko aukera, baina, horretarako, desagertu egin beharko dira kide izateari uztea eragin zuten arrazoiak.

solicitudes de admisión a la Asamblea, donde deberán ser aprobadas.

Artículo 7. *Separación del Consejo.*

1. Dejarán de formar parte del Consejo los colectivos feministas, asociaciones, grupos de mujeres y otras entidades u organismos referidos en el artículo 5.1 en las que concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que así lo decidan voluntariamente y lo comuniquen a la Comisión Gestora.

b) Que dejen de cumplir algunos de los requisitos mencionados en el artículo 5.1 por cese de su actividad.

c) Que tengan conductas o realicen actividades contrarias al objeto y a los fines del Consejo, cuando así lo acuerden por dos tercios de la Asamblea.

d) Que no asistan a las asambleas (2 asambleas ordinarias seguidas o 5 alternas).

2. El procedimiento y las consecuencias de los ceses se regularán en el documento de autoorganización, siendo su aprobación competencia de la Asamblea.

3. La separación del Consejo no impedirá la posible reincorporación al mismo, una vez desaparecidas, en su caso, las causas que la motivaron.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

8. artikulua. *Kontseiluaren egitura.*

Hona hemen Kontseiluaren organoak:

1. Batzarra.
2. Kontseiluko burua.
3. Kontseiluko buruordea.
4. Idazkaria.
5. Batzorde Kudeatzailea.
6. Lan-batzordeak.

9. artikulua. *Kontseiluaren Batzarra.*

1. Kontseiluaren erabaki-organo gorena izango da Batzarra, eta hauek izango ditu kide:

a) Kontseiluko burua,
b) buruordea,
c) idazkaria,
d) eta 5.1 artikuluan aipatutako kolektibo feministak, emakumeen elkarte eta taldeak eta beste entitate eta erakunde batzuk, baldin eta Kontseiluko kide izateko eskabidea egiten badute eta baldintzak betetzen badituzte.

**2.** Kontseiluko kide diren kolektibo feministen, emakumeen elkarte eta taldeen eta beste entitate eta erakunde batzuen kasuan, haietariko bakoitzeko gehienez bi ordezkari joan ahal izango dira Batzarraren bileretara.

Ordezkari guztiek izango dute hitz egiteko eskubidea, baina boto bakarra hartuko da kontuan elkarte, talde, kolektibo, entitate edo erakunde bakoitzeko.

3. Kontseiluak emakume jakin batzuk gonbidatu ahal izango ditu Batzarraren bileretara aditu eta/edo lankide aritzeko; emakumeok hitz egiteko eskubidea izango dute baina ez botoa emateko.

Artículo 8. *Estructura del Consejo.*

El Consejo tendrá los siguientes órganos:

1. Asamblea.
2. Presidencia.
3. Vicepresidencia.
4. Secretaría.
5. Comisión Gestora.
6. Comisiones de Trabajo.

Artículo 9. *Asamblea del Consejo.*

1. La Asamblea será el órgano máximo de decisión del Consejo y estará constituida por:

a) una Presidencia,
b) una Vicepresidencia,
c) una Secretaría
d) y los colectivos feministas, asociaciones, grupos de mujeres y otras entidades u organismos referidos en el artículo 5.1 que soliciten formar parte del Consejo y cumplan los requisitos.

2. Podrán asistir a las sesiones de la Asamblea un máximo de dos representantes de cada uno de los colectivos feministas, asociaciones, grupos de mujeres y otras entidades u organismos integrantes del Consejo.

Todas las representantes tendrán voz, pero se contabilizará un único voto por asociación, grupo, colectivo, entidad u organismo.

3. El Consejo podrá invitar a las sesiones de la Asamblea a mujeres individuales como expertas y/o colaboradoras, con voz pero sin voto.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

10. artikulua. *Kontseiluaren Batzarraren eginkizunak.*

Kontseiluaren Batzarrak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Kontseiluaren jardun-lerroak zehaztu eta onestea.

b) Lan-batzordeak zehaztu eta onestea.

c) Aukera ematea kide guztiek hitz egin dezaten eta bermatzea guztiek parte hartzeko beharrezkoak diren baldintzak.

d) Onestea Kontseiluko kide izateko eta izateari uzteko eskabideak.

e) Kontseiluko burua eta haren ordezkoa aukeratu eta kargugabetzea.

f) Batzorde Kudeatzailea eta haren ordezkoak hautatu eta kargugabetzea, eta Bizkaiko emakumeen dibertsitatea ordezkatuta egon dadin saiatzea, ikuspegi intersekzional batetik.

g) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Planaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.

h) Aurretiaz jasotzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren jarduketa-politikei buruzko informazioa, eta haren jarduketarako ildo orokorrak eta urteko plangintza kontrastatzea.

i) Informazioa jasotzea eta aztertzea Kontseiluko organoetako kideek eginiko esakariei buruz eta bizkaiko Foru Aldundiak emandako erantzunei buruz.

Artículo 10. *Funciones de la Asamblea del Consejo.*

La Asamblea del Consejo tendrá las siguientes funciones:

a) Definir y aprobar las líneas de actuación del Consejo.

b) Definir y aprobar las comisiones de trabajo.

c) Dar voz a todas las integrantes y garantizar las condiciones necesarias para la participación de todas.

d) Aprobar las solicitudes de incorporación y las separaciones del Consejo.

e) Elegir y cesar a la Presidenta y a su suplente.

f) Elegir y cesar a la Comisión Gestora, y sus suplentes, promoviendo la participación de la diversidad de mujeres de Bizkaia desde un enfoque interseccional.

g) Participar en el diseño, seguimiento y evaluación del Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

h) Ser informado con carácter previo sobre las políticas de actuación del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres y contrastar sus líneas generales de actuación y su planificación anual.

i) Informar sobre las demandas planteadas por las personas integrantes en los diferentes órganos del Consejo y las correspondientes respuestas recibidas por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

j) Eztabaidatzea eta, hala badagokio, onartzea Batzorde Kudeatzaileak eta lan-batzordeek aurkeztutako txostenak eta/edo proposamenak.

j) Discutir, y en su caso, aprobar los informes y/ o propuestas presentadas por la Comisión Gestora y las Comisiones de Trabajo.

k) Kontseiluaren partaidetzarako guneen jarduketa zaintzea.

k) Velar por la actuación de los espacios de participación del Consejo.

l) Autoantolaketarako dokumentua eta gainerako funtzionamendu-arauak onestea, bai eta haien aldaketak ere.

l) Aprobar el documento de autoorganización y demás normas de funcionamiento, así como sus modificaciones.

11. artikulua. *Kontseiluaren Batzarraren bilerak.*

Artículo 11. *Sesiones de la Asamblea del Consejo.*

1. Batzarra gutxienez ere urtean bitan bilduko da bilera arruntean, aurretik deialdia eginda.

2. Kontseiluko buruak gutxienez ere 20 egun lehenago egingo du bilerarako deialdia, eta gai-zerrenda erantsiko du tratatu beharreko gaien dokumentazioarekin batera, hizkuntza ofizial bietan.

3. Kontseiluko burua, edo hark eskuordetutako pertsona, Batzarraren bilera arruntetara joango da, eta haietan buru eta moderatzaile arituko da.

4. Kontseiluko burua justifikaziorik gabe azaltzen ez bada Kontseiluaren Batzarraren ondoz ondoko hiru bileretara, ordezkoak hartuko du haren kargua.

5. Batzarrak bilera berezia egingo du baldin eta Batzorde Kudeatzaileak edo Batzarraren erdiak hala eskatzen badute.

6. Kontseiluko buruak, edo hark eskuordetzen duen pertsonak, Batzarraren bilera berezietara joan

1. La Asamblea se reunirá previa convocatoria en sesión ordinaria al menos dos veces al año.

2. La Presidenta convocará la Asamblea con un mínimo de 20 días de antelación adjuntando el orden del día con la documentación correspondiente a los temas a tratar, en las dos lenguas oficiales.

3. La Presidenta, o persona en quien delegue, acudirá, presidirá y moderará las sesiones de la Asamblea con carácter ordinario.

4. El absentismo no justificado de la Presidenta en tres reuniones consecutivas a la Asamblea del Consejo implicará que su suplente adquiera el cargo.

5. La Asamblea se reunirá en sesión extraordinaria cuando lo solicite la Comisión Gestora o la mitad de las personas integrantes de la Asamblea.

6. La Presidenta, o persona en quien delegue, deberá asistir a las sesiones de la Asamblea con carácter extraordinario cuando sea requerida por ésta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

beharko du Batzarrak hala eskatzen badio.

7. Irisgarritasun unibertsala bermatuko da Batzarraren bilerak egiten diren lekuetan, eta, aurretik eskatuta, beharrezkoak diren baliabide guztiak jarriko dira dibertsitate funtzionala edo organikoa duten emakumeek parte hartu ahal izateko.

7. Se garantizará la accesibilidad universal a los espacios donde se celebren las Asambleas, así como los recursos necesarios que se soliciten con antelación para la participación de las mujeres con diversidad funcional u orgánica.

12. artikulua. *Kontseiluko burua.*

1. 5.1.a) eta 5.1.b) puntuetan aipatutako elkarteetako bateko ordezkaria den emakume bat izango da Kontseiluko burua.

2. Kontseiluko burua izango den emakume hori era berean izango da Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen burua.

3. Autoantolaketarako dokumentuan jasoko dira Kontseiluko buruaren karguaren iraunaldia eta kargu hori hautatu zein kargugabetzeko prozedura; Kontseiluak berak onetsi beharko du dokumentu hori, Batzarrean.

4. Kontseiluko buruak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Batzarraren bileretarako deialdia egitea eta bilerok zuzendu eta moderatzea.
b) Batzorde Kudeatzailearen bileretarako deialdia egitea eta bilerok zuzendu eta moderatzea.
c) Batzorde Kudeatzaileak hartutako erabakiak betetzen direla bermatzea.

Artículo 12. *Presidencia del Consejo.*

1. La Presidencia del Consejo la ostentará una mujer representante de alguna de las asociaciones referidas en el artículo 5.1.a) y 5.1.b).

2. La mujer que ostente la Presidencia del Consejo ostentará también las Presidencias de la Asamblea y de la Comisión Gestora.

3. La vigencia del cargo de Presidenta del Consejo, así como el procedimiento para su elección y cese se determinarán en un documento de autoorganización que deberá ser aprobado por el propio Consejo en Asamblea.

4. La presidencia del Consejo tendrá las siguientes funciones:

a) Convocar, dirigir y moderar la Asamblea.

b) Convocar, dirigir y moderar la Comisión Gestora.

c) Garantizar el cumplimiento de los acuerdos adoptados en la Comisión Gestora.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

13. artikulua. *Kontseiluko buruordea.*

1. Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko zuzendariari egokituko zaio Kontseiluko buruordea izatea.

2. Kontseiluko buruordea era berean izango da Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen buruordea.

3. Kontseiluko buruordeak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen bilera arruntetara joatea.

b) Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen bilera berezietara joatea organo horiek hala eskatzen diotenean.

c) Kontseiluaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren informazioa eta dokumentazioa eskura jartzea eta Kontseiluaren proposamen eta iradokizunak bideratzea Bizkaiko Foru Aldundian.

4. Kontseiluko buruordeak ordezko bat izango du, Batzorde Kudeatzailearen aktak jasoko dituena.

14. artikulua. *Kontseiluko idazkaria.*

1. Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko pertsona bat izango da Kontseiluko idazkaria.

2. Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen bilera arrunt eta berezi

Artículo 13. *Vicepresidencia del Consejo.*

1. La vicepresidencia del Consejo corresponderá a quien ostente la Dirección del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. La persona que ostente la Vicepresidencia del Consejo ostentará también las Vicepresidencias de la Asamblea y de la Comisión Gestora.

3. La vicepresidencia del Consejo tendrá las siguientes funciones:

a) Asistir a las sesiones ordinarias de la Asamblea y de la Comisión Gestora.

b) Asistir a las sesiones extraordinarias de la Asamblea y de la Comisión Gestora cuando sea requerida por dichos órganos.

c) Facilitar la información y la documentación necesaria para el cumplimiento de los fines del Consejo y canalizar las propuestas y sugerencias del Consejo en la Diputación Foral de Bizkaia.

4. La vicepresidencia tendrá asignada una suplente, que recibirá las actas de la Comisión Gestora.

Artículo 14. *Secretaría del Consejo.*

1. La Secretaría del Consejo la ostentará una persona del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. La persona que ostente el cargo de Secretaría del Consejo asistirá a todas las

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

guztietara joango da Kontseiluko idazkaria.

3. Kontseiluko idazkariak hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa ematekoa.

4. Kontseiluko idazkariak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Deialdiak egitea Kontseiluko buruak edo buruordeak hala dioenean.

b) Bileretako aktak egitea.

c) Bere kargua dela-eta igortzen dizkioten dokumentuak, jakinarazpenak, zuzenketak, datu-eskaerak, eta abar jasotzea.

d) Kontseiluan parte hartzen duten elkarte eta erakundeen erregistroa eguneratuta edukitzea, bai eta haien ordezkari eta ordezkoen zerrendak ere.

e) Kontseiluaren jarduketen legezkotasun formala eta materiala zaintzea, organo horren jarduketak ziurtatzea, eta eraketarako nahiz erabakiak hartzeko prozedura eta erregelak errespetatzen direla bermatzea.

15. artikulua. *Batzorde Kudeatzailearen osaera eta kideen hautaketa*.

1. Honako hauek izango dira Batzorde Kudeatzaileko kide:

a) Burua, Kontseiluko burua.

b) Buruordea, Kontseiluko buruordea.

sesiones ordinarias y extraordinarias de la Asamblea y de la Comisión Gestora.

3. La persona que ostente el cargo de Secretaría del Consejo tendrá voz pero no tendrá voto.

4. La Secretaría del Consejo tendrá las siguientes funciones:

a) Realizar las convocatorias cuando la Presidencia o Vicepresidencia lo considere.

b) Realizar las actas de las sesiones.

c) Recoger todos los documentos, notificaciones, correcciones, solicitud de datos, etc., que por la naturaleza de su cargo le vayan dirigidos.

d) Mantener al día el registro de asociaciones y organizaciones participantes en el Consejo así como las listas de sus representantes y sustitutas.

e) Velar por la legalidad formal y material de las actuaciones del Consejo, certificar las actuaciones del mismo y garantizar que los procedimientos y reglas de constitución y adopción de acuerdos sean respetados.

Artículo 15. *Composición y elección de la Comisión Gestora*.

1. La Comisión Gestora estará compuesta por:

a) Presidencia, a cargo de quien ostente la Presidencia del Consejo.

b) Vicepresidencia, a cargo de quien ostente la Vicepresidencia del Consejo.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

c) Zazpi kide, Kontseiluko elkarte, talde, kolektibo, entitate edo erakundeetako zazpi emakume.

d) Idazkaria, Kontseiluko idazkaria.

2. 5.1.a) eta 5.1.b) puntuetan aipatutako kolektibo feminista edo emakumeen elkarte eta taldeetakoak izango dira kideetako bi heren gutxienez.

3. Batzarrak aukeratuko ditu Batzorde Kudeatzaileko kide horiek eta haien ordezkoak, 2 urtez (beste bi urtez luzatzeko aukeraz), bileran dauden Kontseiluko kideen zuzeneko boto sekretuaren bidez.

4. Bizkaiko emakumeen dibertsitatea sustatuko da Batzorde Kudeatzailea osatzeko orduan, ikuspegi intersekzional batetik.

5. Batzorde Kudeatzailea gutxienez ere lau bider bilduko da urtean, aurretik deialdia eginda.

6. Kontseiluko buruak Batzorde Kudeatzailearen bileretarako deialdia egingo du, eta bilerak zuzendu eta moderatuko ditu; horrez gainera, bermatuko du hartutako erabakiak betetzen direla.

7. Batzorde Kudeatzailearen aktak jasoko dituzte kideek eta haien ordezkoek.

8. Batzorde Kudeatzailea bilera berezian bilduko da gutxienez ere batzordeko lau kidek hala eskatzen dutenean.

9. Kontseiluko buruak, edo hark eskuordetzen duen pertsonak, Batzorde

c) Siete vocalías, a cargo de siete mujeres representantes de las asociaciones, grupos, colectivos, entidades u organismos integrantes del Consejo.

d) Secretaría, a cargo de quien ostente la Secretaría del Consejo.

2. Al menos, dos terceras partes de las vocalías corresponderán a los colectivos feministas, asociaciones y grupos de mujeres referidos en el artículo 5.1.a) y 5.1.b).

3. Las vocalías de la Comisión Gestora y sus respectivas suplentes, serán elegidas por la Asamblea, por 2 años renovables a otros 2, mediante voto directo y secreto de las integrantes del Consejo presentes.

4. Se promoverá la diversidad de mujeres de Bizkaia en la composición de la Comisión Gestora, desde un enfoque interseccional.

5. La Comisión Gestora se reunirá, previa convocatoria, al menos cuatro veces al año.

6. La presidencia del Consejo convocará, dirigirá y moderará la Comisión Gestora y garantizará el cumplimiento de los acuerdos adoptados.

7. Las vocalías y sus respectivas suplentes recibirán las actas de la Comisión Gestora.

8. La Comisión Gestora se reunirá en sesión extraordinaria cuando al menos cuatro de sus integrantes lo soliciten.

9. La Presidenta, o persona en quien delegue, deberá asistir a las sesiones extraordinarias

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

Kudeatzailearen bilera berezietara joan beharko du Batzordeak hala eskatzen badio.

10. Batzordeko burua edo kideak justifikaziorik gabe azaltzen ez badira Batzorde Kudeatzailearen ondoz ondoko hiru bileretara, ordezkoek hartuko dute haien kargua.

11. Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko teknikarien eta/edo emakume aditu eta/edo lankideen laguntza izan ahal izango du Batzorde Kudeatzaileak; pertsona horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa ematekoa.

16. artikulua. *Batzorde Kudeatzailearen eginkizunak.*

Batzorde Kudeatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Kontseiluaren jarduerak sustatu, dinamizatu eta koordinatzea.
b) Zaintzea Kontseilua espazio horizontal eta parte-hartzaile bat dela, non ahots eta iritzi guztiak errespetatzen diren.
c) Kontseiluan parte hartzen duten elkarteen arteko komunikazioa erraztea.
d) Batzarrari aurkeztea Kontseiluaren urteko jarduketa-plana, Batzarrak onets dezan.
e) Lan-batzordeen jarduera koordinatzea eta jarraipena ematea jarduera horri.
f) Batzarraren bilera arrunt eta berezietarako gai-zerrenda egitea.
g) Lan-batzordeak proposatzea Batzarrari.
h) Batzarrean hartutako erabakiak kudeatzea eta jarraipena ematea erabaki horiei.

de la Comisión Gestora cuando sea requerida por ésta.

10. El absentismo no justificado de la Presidenta y de las vocales en tres reuniones consecutivas de la Comisión Gestora implicará que sus suplentes adquieran el cargo.

11. La Comisión Gestora podrá contar con la colaboración de personal técnico del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Diputación Foral de Bizkaia y/o mujeres individuales como expertas y/o colaboradoras, con voz pero sin voto.

Artículo 16. *Funciones de la Comisión Gestora.*

La Comisión Gestora del Consejo tendrá las siguientes funciones:

a) Impulsar, dinamizar y coordinar las actividades del Consejo.
b) Velar para que el Consejo sea un espacio horizontal y participativo donde se respeten todas las voces y opiniones.

c) Facilitar la comunicación entre las asociaciones participantes del Consejo.
d) Presentar a la Asamblea, para su aprobación el plan anual de actuación del Consejo.
e) Coordinar y dar seguimiento a la actividad de las distintas comisiones de trabajo.
f) Elaboración del orden del día de las Asambleas ordinarias y extraordinarias.
g) Proponer a la Asamblea las Comisiones de trabajo.
h) Gestionar y dar seguimiento a las decisiones tomadas en la Asamblea.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

i) Kontseiluko kide izateko eta izateari uzteko baldintzak kudeatzea eta horretarako eskabideak aurkeztea Batzarrari, bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa gorabehera.

17. artikulua. *Lan-batzordeak*.

1. Lan-batzordeak Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren lanerako organo arruntak izango dira, eta modu iraunkorrean edo aldi baterako eratuko dira gai jakin batzuk aztertzeko eta/edo lantzeko.

2. Batzarrean zehaztu eta onetsiko dira lan-batzordeak.

3. Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko teknikarien eta/edo emakume aditu eta/edo lankideen laguntza izan ahal izango dute lan-batzordeek; pertsona horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa ematekoa.

18. artikulua. *Batzarra eratzeko eta erabakiak hartzeko quoruma*.

1. Batzarra balio osoz eratzeko quoruma izan dadin, gutxienez ere kideen heren bat izango da beharrezkoa.

2. Batzorde Kudeatzailea balio osoz eratzeko quoruma egon dadin, gutxienez ere bost kide behar izango dira.

3. Adostasunez hartuko dira Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen erabakiak.

Adostasun hori bi bozketetan lortzen ez bada, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, salbu eta autoantolaketarako dokumentua onesteko, kasu horretan

i) Gestionar los requisitos de entrada y salida del Consejo y presentar las solicitudes a la Asamblea, sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria Segunda.

Artículo 17. *Comisiones de Trabajo*.

1. Las comisiones de trabajo serán órganos ordinarios de trabajo del Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia, que se constituirán de forma permanente o temporal para el estudio y/o desarrollo de temas concretos.

2. Las comisiones de trabajo se definirán y se aprobarán en la Asamblea.

3. Las comisiones de trabajo podrán contar con la colaboración de personal técnico del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Diputación Foral de Bizkaia y/o mujeres individuales como expertas y/o colaboradoras, con voz pero sin voto.

Artículo 18. *Quórum para la constitución y adopción de acuerdos*.

1. El quórum necesario para la válida constitución de la Asamblea será de, al menos, un tercio de sus integrantes.

2. El quórum necesario para la válida constitución de la Comisión Gestora será de al menos cinco personas.

3. Los acuerdos de la Asamblea y la Comisión Gestora se adoptarán por consenso.

Si no se alcanzara en dos votaciones, los acuerdos se tomarán por mayoría simple, salvo para la aprobación del documento de autoorganización, que será necesaria una mayoría de dos tercios.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

beharrezkoa izango baita bi herenen gehiengoa egotea.

19. artikulua. *Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkarien parte-hartzea.*

Aurretik gonbidatuta, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak joan ahal izango dira Batzorde Kudeatzailearen edo Batzarraren bileretara; ordezkariok hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa ematekoa.

Artículo 19. *Participación de representantes de la Diputación Foral de Bizkaia.*

A las reuniones de la Comisión Gestora o de la Asamblea podrán asistir, previa invitación, y con voz pero sin voto, representantes de la Diputación Foral de Bizkaia.

20. artikulua. *Araubide juridikoa.*

Foru-dekretu honetan ezarrita ez dagoenerako eta Batzarrak antolaketan ezartzen dituen berezitasunak gorabehera, Kontseiluak, bere funtzionamenduari dagokionez, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. kapituluko arauak beteko ditu.

Artículo 20. *Régimen Jurídico.*

En todo lo no previsto en el presente decreto foral y sin perjuicio de las peculiaridades organizativas que establezca la Asamblea, el Consejo se ajustará en su funcionamiento a las normas contenidas en el capítulo II de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Behin-behineko Batzorde Kudeatzailearen sorrera eta osaera.*

1. Lehenengo Batzarra eratu eta Kontseiluaren Batzorde Kudeatzailea hautatu arte, Behin-behineko Batzorde Kudeatzaile bat eratuko da, zazpi emakumek osatua.

2. Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako organoak deitutako topaketa batean hautatuko dira Behin-behineko Batzorde Kudeatzaileko kideak; 5.1.a) eta 5.1.b) puntuetan aipatutako kolektibo feministak eta emakumeen elkarte eta taldeak gonbidatuta egongo dira topaketa horretara.

Disposición Transitoria Primera. *Creación y composición de la Comisión Gestora Provisional.*

1. Hasta el momento en que quede constituida la primera Asamblea y sea elegida la Comisión Gestora del Consejo, se constituirá una Comisión Gestora Provisional, integrada por siete mujeres.

2. Las integrantes de la Comisión Gestora Provisional serán elegidas en un encuentro convocado por el Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Bizkaia, a la que se invitará a los colectivos feministas, asociaciones y grupos de mujeres referidos en el artículo 5.1.a) y 5.1.b).

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

Behin-behineko Batzorde Kudeatzailea osatzen duten elkarteak hautatuko dira topaketa horretara doazenen artean.

3. Behin Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua formalki eratzen denean, bere eginkizunak betetzeari utziko dio Behin-behineko Batzorde Kudeatzaileak.

Bigarren xedapen iragankorra. *Behin-behineko Batzorde Kudeatzailearen eginkizunak.*

1. Behin-behineko Batzorde Kudeatzaileak Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren autoantolaketarako dokumentuaren proposamena egingo du, eta proposamen hori Kontseiluaren lehenengo Batzarrean aurkeztu eta, hala badagokio, onetsiko da.

2. Behin-behineko Batzorde Kudeatzaileak martxan jarriko ditu 5.1 artikuluko elkarte, kolektibo eta entitate guztiak Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilura sartzeko mekanismoak, baldin eta Kontseilura sartzeko eskabidea egiten badute eta 6. artikuluan arautako baldintzak betetzen badituzte.

3. Behin-behineko Batzorde Kudeatzaileak erabakiko du Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren Batzarraren lehenengo bileraren deialdirako gai-zerrenda; Batzarreko kideak aukeratu eta gehienez ere 8 eguneko epean egingo da Batzarraren lehenengo deialdia.

Azken xedapena. *Indarrean jartzea.*

Las asociaciones que compongan la Comisión Gestora Provisional serán elegidas entre las asistentes a este encuentro.

3. Una vez constituido formalmente el Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia, la Comisión Gestora Provisional cesará en sus funciones.

Disposición Transitoria Segunda. *Funciones de la Comisión Gestora Provisional.*

1. La Comisión Gestora Provisional elaborará una propuesta de documento de autoorganización del Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia, que será presentada, y en su caso, aprobada en la primera Asamblea del Consejo.

2. La Comisión Gestora Provisional pondrá en marcha los mecanismos para la incorporación al Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia de todas las asociaciones, colectivos y entidades comprendidas en el artículo 5.1 que soliciten formar parte del Consejo y cumplan los requisitos regulados en el artículo 6.

3. La Comisión Gestora Provisional acordará el orden del día de la convocatoria de la primera Asamblea del Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia, que deberá convocarse en un plazo máximo de 8 meses desde su elección.

Disposición final. *Entrada en vigor.*

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Bilbon emana, 2020ko … ren …e)(a)n.

Dado en Bilbao, a … de … de 2020.

Ahaldun Nagusia / Diputado General.

UNAI REMENTERIA MAIZ

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Diputatua / Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

TERESA LAESPADA MARTINEZ

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 59AB-RPKX-1V6J-HJC1 en www.ebizkaia.eus.